

HERRIKO ESPAZIO PUBLIKOA AZTERTZEN




Eskolako Agenda 21

LH 3. zikloa



Azter dezagun gure herriko kaleen banaketa.

Horretarako, inguruko kaleak ikertuko ditugu taldeka. (Adierazi metrotan neurri guztiak).





HERRIKO ESPAZIO PUBLIKOA AZTERTZEN

- Ikertzen ari garen kalearen izena:
.....
- Kale osoaren zabalera:
.....
- Autoentzako alde osoaren zabalera:
.....
- Oinezkoentzako espaloien zabalera (ezkerrekoa eta eskuinekoa):
.....
- Ba al dago aparkalekurik inguruan?
.....
- Baiezkoa bada, aparkalekuaren luze-zabalera:
.....
- Elbarrituentzat, ume- kotxeentzat... ba al dago oztoporik?
.....
- Gurpil-aukiarentzat eta ume- kotxearentzat ba al dago nahiko leku?
.....
- Bidegorririk ba al dago?
.....
- Non dago egina, errepidean, espaloian, ala independentea da?
.....
- Bidegorriaren zabalera osoa:
.....
- Bizikletentzat bakarrik da ala oinezkoentzat ere bai?
.....
- Kasu horretan, ze zabalera du oinezkoen bideak?
.....
- Eta bizikletentzakoak?
.....
- Ba al du jarraipenik edo moztu egiten da?
.....

HERRIKO ESPAZIO PUBLIKOA AZTERTZEN



Eskolako Agenda 21

LH 3. zikloa



Jendearen ohitura txarrak:

- Zebra-bidetik kanpo gurutzatzen duen lagun-kopurua:
- Elbarrituen aparkalekuan aparkatzen duten ibilgailu kopurua:
- Zebra-bidean itxaroten dagoena errespetatzen ez duen ibilgailu kopurua:
- Espaloi gainean aparkatuta dagoen ibilgailu kopurua:
- Ibilgailu hauek kentzen dituzten lekua (neurtu okupatzen duten lekuaren zabalera):
- Bidegorrian bizikletentzako lekutik doan lagun-kopurua:
- Bidegorrian pertsonentzako lekutik doan bizikleta kopurua:
- ... (besteak):

Jaso dituzuen datuak **Google docs**-en zintzilikatuko dituzue (zuen ikastetxeko kontuan), horrela ikastetxe guztietako ikasleek herri osoko kaleen datuak izango dituzue. Ondoren, jasotako datuetan oinarrituta aztertutako kalearen balorazioa egin eta horen arabera **Google maps**-en kale horrek daukan ikonoari kolorea aldatuko diozue, hau da:

Berdea, honako baldintzak betetzen baditu:

- Espaloiaren zabalera gutxienez 2m-koa bada.
- Zebra-bidea badago kalea gurutzatzeko.
- Espaloiak galtzadaren neurriraino beheratuta badaude paso guztietan.
- Bidegorria badago.

Horia, aipatutako baldintzatatik bat (edozein) betetzen ez bada, edo jendearen ohitura txarrek oztopoa egiten badute.

Gorria, aipatutako baldintzatatik bi edo gehiago betetzen ez badira edo jendearen ohitura txarrek oztopoa egiten badute.



HERRIKO ESPAZIO PUBLIKOA AZTERTZEN

Guztion artean, eta herri guztiko kaleak margotuta daudenean, ondorengo galderei erantzun:

- Orokorrean egokia al da kaleen banaketa? (Egia izateko harko baldintzak bete behar ko ditu)
 - 1.-Espaloiien zabalera 2,00 metro edo gehiagokoa izatea (Inisgarritasun Planaren arabera).
 - 2.-Zebra-bidea egotea.
 - 3.-Espaloiak galtzadaren neurriraino beheratuta egotea paso guztietan.
 - 4.- Bidegorria egotea.

-Zeinek okupatzen du espazio gehiago, autoek ala oinezkoek?

-Zeinentzako dago diseinatuta herria, autoentzako ala oinezkoentzako?

-Arazorik handienak non aurkitu dituzue? Zergatik?

-Aurrera begira, zerbait egin al dezake Udalak egoera hobetzeko?

-Zuek zer proposatzen duzue?

Amaitzeko, Aztertutuzuen kalearen maketa egin dezakezue. Horretarako, jar ezazue kartulina bat edo zerbait antzekoa oinarri bezala. Ebakigarriak egin zeuek (Kotxeak, etxeak, zuhaitzak... Kanean ikusi dituzuen elementuak). Nahi izanez gero, kaleak eta espaloiak eskuz margotu ditzakezue.